



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2009/10 denboraldia

29 ZK.DUN GUTUNA

EUSKADIKO KADETEEN LIGARAKO IGOERA-ALDIA

Datorren denboraldian Euskadiko Kadeteen Ligara igoko den taldea zein izango den zehazte aldera, eta Batzorde Nagusian hitzarturiko txapelketainarriei jarraiki, igoera-aldia antolatu da, honako arauak oinarri harturik:

1.- Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko maila goreneko Kadeteen Ligan bigarren postuetan sailkaturiko taldeak:

Sta. M ^a Vitoria	(Alava)
Retuerto	(Bizkaia)
Lengokoak	(Gipuzkoa)

2.- Txapelketa-sistema

Izendaturiko formularen bidez egingo da (HIRU BATEAN). Partidek berrogei minutuko iraupena izango dute. Ekainaren 5ean jokatuko dira Olaranbe Futbol zelaian (Gasteiz) (belar artifiziala). Partidak honako ordenan jokatuko dira:

S.D. Lengokoak – Retuerto S.S.D.	11,00 ord.
1. Galtzailea - Sta. M ^a de Vitoria A.D.	12,00 ord.
1. Irabaslea - Sta. M ^a de Vitoria A.D.	13,00 ord.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

3.- Arbitrajea

Partidak zuzentzeko Lurralde Maila Goreneko lau arbitroek aukeratuko dira. Gastuak Euskadiko Federakundearen pentzudakoak izango dira

4.- Zigorrak

Txapelketaren ezaugarriak direla eta, Ohiko Ligaren zigorrek ez dute ondorerik izango bertan. Zigor horiek hurrengo denboraldian kontuan hartuko dira.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

Bilbo, 2010ko maiatzaren 31a



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

EUSKADIKO KADETEEN LIGARAKO IGOERA-ALDIAREN ARAU OROKORRAK, "HIRU BATEAN" IZENeko SISTEMAREN ARABERA.

JOKALARI KOPURUA

Talde bakoitzak 18 jokalaria aurkeztu ahalko ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten.

JOKALARIEN ALDAKETAK

Partidetan, gehienez, hiru aldaketa egin ahalko dira. Ordezkoa, gehienez, zazpi izango dira.

KANPORATZEAK

Lehenengo partidaren kanporaturiko jokalaria oro ezin izango da bigarren partidako jokalaria-zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

BERDINKETAK

Balizko berdinketak EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 99 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- a) Aldian jasotako eta egindako golen arteko alde handiagoa duen taldea lehenetsiko da. Txapelketako partida osoak kontuan harturik.
- b) Gol gehien egin dituen taldearen alde.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlea, bigarren partida jokatze aldera.

BALOIAK

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.

-O-O-O-O-O-O-O-O-